

BEGOÑA AMUNDARAIN URIARTE

25 urte Euskaltzaindian lanean,
Zilarrezko domina

Bilbo egoitza 2003ko urtarrilaren 31n

*Jean Haristschelhar,
euskaltzainburua*

Euskaltzain kideak,

Euskaltzaindiko langileak, egun on.

Gure arteko besta ttipi honetara etorririk, eskerrik asko denoi eta ongi etorri. Alabaina, bilduak gara Begoña Amundarain Uriarte anderearen omenaldikari.

Arratiako Artea herrian sortua eta bertan bizi da. Pasa den azaroan bete ditu 25 urte Euskaltzaindian bulegari lanetan. Aurreko okasioetan Jose Luis Lizundia eta Maria Pilar Lasarteri lehendabizi, 1994an, eta geroztik Juanjo Zerretea, Nere Altuna eta Ricardo Badiolari bezalaxe, gure Begori ere iritsi zaio Akademiaren zilarrezko domina hartzeko tenorea.

Gure idazkariorde-kudeatzailearen sekretaria lanetan aritu da gehienbat. Jose Luisek behin baino gehiagotan esan didanez, zehaztasuna eta leialtasuna izan dira eta dira bere dohairik aipagarrienak. Lanerako beti prest, lan hori ongi finitzea gustatzen zaiolarik. Beste aipamen asko egingo genituzke, bai Zuzendaritzakideok, bai Jose Luisek eta gainontzeko eragile eta lankideak, baina badakit, agian, Begok gehiegiztat hartuko lituzkeela, nahiz eta mereziak izan.

Euskaltzaindiaren langilegoak, bai egoitzako eta baita ordezkaritzetakoak, talde edo ekipo ona egiten du, tartean gure Begoña Amundarain, berau sartzan delarik Erakundearen zilarrezko zerrendan.

Zorionak, beraz, Bego eta gorde-ezazu *Zilarrezko domina* hau zure zintzotasunaren lekuko baita.

